

## ARRATZUKO UDAL FUNTSEKO ISAD ARAUA

### Identifikazio-arloa

Erreferentziako kodea	ES 48020 AHFB/BFHA U48914
Titulua	Arratzuko Udal Artxiboa
Data(k)	1717 – 1974
Deskribapen maila	Funtsa
Deskribapen-unitatearen bolumena eta euskarria	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Metro linealak: 14,26 m/l</li> <li>– Kaxak: 111</li> <li>– Liburuak: 72</li> <li>– Karpetak: 2</li> <li>– Espediente-kopurua: 1.532</li> </ul> Papera.

### Testuinguru arloa

Ekoizlearen izena	Arratzuko Udala
Instituzio historia	<p>Busturialdea eskualde bizkaitarrean kokatzen da Arratzu, Gernikako barruti judizialaren barruan.</p> <p>Arratzuko elizateak Jaureriko Batzar Nagusietako hamargarren eserlekua hartu zuen.</p> <p>Gastiburu mendian, Arratzuko jurisdikzioan, hainbat garaitan zehar armak, txanponak eta jatorri erromatarreko beste objektu batzuk aurkitu dira. Ondorioz, Augustoren garaiko erromatar kanpamentu bat existitzen zela suposatu zuen Delmasek. Era berean, 1776 inguruan, mota horretako aztarnak aurkitu ziren Arratzuko etxe batean. Etxe hura, zehazki, 1468an erre eta, ondoren, berreraiki egin zen.</p> <p>Mendi horretan, kristo aurreko III. mendeko Gastiburuko santutegia nabarmentzen da, Arrolako kastrotik hurbil zeuden biztanleentzat balio ekonomiko, politiko eta sinboliko handia izan behar zuena.</p> <p>Antzinako parroikia-eliza, Santo Tomasen izenpean eraiki zen XII. eta XIII. mendeen artean, eta XVI. mendearen lehen herenean berreraiki zen. Erdi Aroan, Bizkaiko lurralde historikoko gainerako tokietan bezala, borroka handiak izan ziren bandokideen artean.</p>



<b>Instituzio historia</b>	<p>Ekonomikoki industria- eta biztanle-garapen eskasa duen udalerrria da. Nekazaritzan, abeltzaintzan eta baso-ustiapenetan oinarritzen da bertako ekonomia. XX. mendean ere industrializazioak ez du maila esanguratsurik lortu.</p> <p>1966ko abenduaren batetik 1992ko urtarrilaren hamahirura bitartean, Arratzuk bere nortasun juridikoa galdu zuen, Gernika eta Lumoko kide izateko.</p>
<b>Artxibo historia</b>	<p>Dokumentazio historikoa Gernikako Udalaren instalazioetan gordeta egon zen, harik eta 1992an desanexionatu ondoren berriro udaletxe bihurtu eta bere estatus juridikoa berreskuratu zuen arte. Une horretatik aurrera, Gernikako Udal Artxiboan zegoen elizatearen dokumentazio historikoa Arratzuko Udalari itzuli zitzaion. Hala ere, haren bolumen oso txiki bat Gernikako Juntetxeko Artxiboan geratu zen, egun berean desanexionatutako beste elizateen paperekin batera. Funtsaren zati hori Foru Agiritegi Historikora eraman zen 1992an. Une hartan zeukan deskribapenerako tresna bakarra Juntetxean zeuden dokumentuen zerrenda bat zen.</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuak 2012ko dokumentazioa Arratzuko Udal Artxibotik BFAHra eraman aurretik egindako txostenaren arabera, artxiboa oso espazio txikia zen, eta bertan gordetako dokumentazio historikoa urria zen.</p>
<b>Sarrera modua</b>	<p>BFAHn gordetako dokumentazioaren zati bat 1992ko maiatzaren 4an Gernikako Juntetxeko Artxibotik egindako lekualdaketagatik sartu da.</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arratzuko Udalak urte horretako otsailaren 21ean sinatutako lankidetzeta-hitzarmena betetzeko, BFAHn 2012ko maiatzaren 4an sartu zen artxibo gehiena.</p>

## Eduki eta egitura arloa

<b>Irismena eta edukia</b>	<p>Arratzuko elizateak eta Udalak 1717 eta 1974 bitartean sortutako dokumentazio historikoa.</p> <p>Gainera, Udal Epaitegian 1861 eta 1918 artean egindako epaiketen liburu bat daukan kutxa bat dago.</p>
<b>Balorazioa, hautaketa eta ezabaketa</b>	<p>Kontserbazio iraunkorreko dokumentazioa.</p>



Sarrera berriak	Beste hitzarmen bat sinatuz gero, sarrera berriak egon daitezke.
Erakundea	<p>Dokumentazioa Udal Artxibozainen Lantaldearen sailkapen-koadroaren bidez antolatu da, serie batzuekin handituta.</p> <p>Koadroa BFAHn dauden udalerrri guztietarako erabiltzen da, eta, beraz, baliteke udalerrri horretan sortutako dokumentazioaren artean serie batzuk ez islatzea.</p> <p>Gobernuaren, Idazkaritzaren eta Udal Administrazioaren eta Ogasunaren jarduerak hartzen ditu, honela:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>– Gobernua: 47 dokumentu 1765 eta 1966 bitartekoak.</li><li>– Idazkaritza: 892 dokumentu 1717 eta 1972 bitartekoak.</li><li>– Ogasuna: 585 dokumentu 1777 eta 1974 bitartekoak.</li></ul>

## Sartzeko eta erabiltzeko baldintzen arloa

Sartzeko baldintzak	Sarrera askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Erreproduktzio baldintzak	Erreproduktzio askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Dokumentuen hizkuntza/idazkera	Gaztelania.
Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	Kontserbazio-egoera, oro har, ona da.
Deskribapen tresnak	<p>Dokumentazio guztia katalogatuta dago, eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak erabiltzen dituen deskribapen-tresnen bidez eskura daiteke:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>Sailkapen-koadroa.</li><li>ARWE datu-basea, artxiboari buruzko katalogazioa kudeatzeko. Hainbat sarbide-puntu eta onomastika, toponimia eta gaikako indize ditu.</li><li><a href="#">ARIT datu-basea</a>, kanpo-kontsultarako, aurrekoaren informazio eta sarbide berarekin.</li></ol>

## Lotutako dokumentazio arloa

Jatorrizko dokumenturik ote dagoen eta horien kokalekua	Dokumentazio guztia originala da.
---	-----------------------------------



Kopiarik ote dagoen eta horien kokalekua	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa gordetzen duen dokumentazioaren zati bat digitalizatzen eta Interneten erabiltzaileen eskura jartzen ari da. Sarbidea <a href="#">ARITen datu-basea</a> ren bidez ere egiten da. Akta-liburuak, 1830 baino lehenagoko dokumentazioa, 1900 baino lehenagoko dokumentazioa (planoak barne), eta 1910 baino lehenagoko biztanleen erroldak digitalizatu dira.
Lotutako deskribapen unitatea	Arratzuko Udalarekin zerikusia duten dokumentu-iturriak daude BFAHren atal guztietan, batez ere administrazio-sailean eta sail judizialean. Udalak 1941etik gaur egun arte sortutako dokumentazioa udaletxean gordetzen da.
Argitalpenei buruzko oharra	Garate Maidagan, Diego (2003). Ajangiz y Arratzu: Estudios Histórico-Artístico. Monografías de los Pueblos de Bizkaia. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao.

## Oharren arloa

Oharrak	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak artxibo historikoaren funtzioa betetzen du funtsak gordailutu dituzten udalerrientzat.
---------	--

## Kontrol arloa

Artxibozainaren oharra	Actuaciones Culturales Estrategicas 4 SL enpresak Bizkaiko Agiritegi Historikoko udal-atalerako egindako deskribapena, bertako teknikariak gainbegiratuta.
Arauk edo erregelak	General International Standard Archival Description, Second Edition, ISAD (G) (Agirien Deskribapenerako Nazioarteko Arau Orokorra). Deskribapen Agirien Batzordeak hartutakoa Agirien Nazioarteko Kontseiluan, Stockholmen (Suedia), 1999ko irailaren 19-22an. Madril. 2000.
Deskribapenaren data	20/01/2020